

PROPUESTAS PARA CENTROS EDUCATIVOS IKASTETXEETARAKO PROPOSAMENAK

CURSO 26-27 IKASTURTEA



f FUNDACIÓN
BALUARTE
FUNDazioA



ORQUESTA
SINFÓNICA
DE NAVARRA

NAFARROAKO
ORKESTRA
SINFONIKOA

PROPUESTAS | PROPOSAMENAK

17.12.26	E.S.O. / D.B.H.	El mar Itsasoa	6
15.01.27	E.I. / H.H.	Pintto Pintto	8
11-12.03.27	E.P. / L.H.	Músico Mágico	10
08-09.04.27	E.P. / L.H.	Funamviolistas Sinfónico	12

Información, precios e inscripciones Informazio, prezioak eta izen-ematea	14
---	----

Programa Educativo y Social de Fundación Baluarte Baluarte Fundazioaren Hezkuntza eta Gizarte Programa	15
---	----

Estimado profesorado:

Mediante estas líneas, quiero trasladarles nuestro más sincero agradecimiento por su iniciativa y gestión al inscribir, curso tras curso, a su alumnado en las actividades de música sinfónica y artes escénicas programadas desde Fundación Baluarte. Somos conscientes del esfuerzo logístico y organizativo que implica coordinar una salida fuera del aula. Sin embargo, estamos convencidos de que la experiencia de vivir el arte en vivo es un complemento indispensable para la formación humanística de los estudiantes.

Más allá del disfrute de un espectáculo, la presencia de la infancia y la juventud en teatros y salas de conciertos es una inversión pedagógica con beneficios incalculables. A nivel individual, estas vivencias fomentan la capacidad de concentración, la sensibilidad emocional y el pensamiento crítico, permitiendo que cada estudiante descubra nuevas formas de expresión y autoconocimiento.

Asimismo, consideramos que su labor tiene un impacto social determinante. Al acercar el patrimonio cultural a las nuevas generaciones, se contribuye a la construcción de una sociedad más cohesionada y empática, fundamentada en valores de convivencia, respeto y apreciación por la diversidad creativa que nos define. En estos tiempos, en los cuales los hábitos de consumo de los más jóvenes están tan marcados por la inmediatez de las pantallas y la fragmentación de los contenidos digitales, su dedicación adquiere una relevancia excepcional al invitarles a sentarse en una sala de conciertos, ofreciéndoles el valor del tiempo, la pausa y la contemplación.

No queríamos desaprovechar esta ocasión para agradecer sinceramente su visión y empeño en mantener ese puente fundamental entre las instituciones culturales y las aulas, asegurando el acceso a un patrimonio artístico de calidad. Su compromiso garantiza el derecho de la infancia y la juventud a la cultura, logrando que estos jóvenes estén un paso más cerca de convertirse en ciudadanos culturalmente activos.

Muchas gracias por su confianza y colaboración.

IONE ARRONIZ TRISTÁN

Coordinadora del Programa Educativo y Social

Irakasle agurgarriak:

Lerro hauen bitartez, eskerrak eman nahi dizkizuet Baluarte Fundazioak antolatutako musika sinfonikoko eta arte eszenikoetako jardueretan ikasturtez ikasturte izena ematean izandako ekimen eta kudeaketagatik. Badakigu ikasgelatik kanpoko irteera bat koordinatzeak zer-nolako logistika- eta antolaketa-ahalegina eskatzen duen. Hala ere, ziur gaude artea zuzenean bizitzearen esperientzia ezinbesteko osagarria dela ikasleen prestakuntza humanistikorako.

Ikuskizun batez gozatzeaz harago, haurrak eta gazteak antzokietara eta kontzertu-aretoetara joatea inbertsio pedagogikoa da, eta onura kontaezinak ditu. Maila indibidualean, bizipen horiek kontzentratzeko gaitasuna, sentsibiltate emozionala eta pentsamendu kritikoa sustatzen dituzte, eta ikasle bakoitzak adierazteko eta beren burua ezagutzeko modu berriak deskubritzea ahalbidetzen dute.

Halaber, zeregin horrek gizartean eragin erabakigarria duela uste dugu. Kultura-ondarea belaunaldi berriei hurbiltzean, gizarte kohesionatuagoa eta enpatikoagoa eraikitzen laguntzen da, definitzen gaituen sormen-aniztasunarekiko bizikidetza-, errespetu- eta hautemate-balioetan oinarrituta.

Garaiotan, gazteenen kontsumo-ohiturak pantailen berehalakotasunak eta eduki digitalen zatiketak hainbeste markatzen dituen honetan, haien dedikazioak aparteko garrantzia hartzen du kontzertu-areto batean esertzera gonbidatzean, denboraren, etenaren eta kontenplazioaren balioa eskaintzen baita.

Abagune hau baliatu nahi genuen benetan eskertzeko erakunde kulturalen eta ikasgelen arteko funtsezko zubi horri eusteko duzuen ikuspegia eta ahalegina, horri esker kalitatezko ondare artistikoa eskuratzen dela ziurtatzen baituzue. Zuen konpromisoak haur eta gazteek kulturarako duten eskubidea bermatzen du, eta gazte horiek kulturalki aktibo bihurtzeko pauso bat hurbilago egotea lortzen du.

Eskerrik asko zure konfiantza eta laguntzagatik.

IONE ARRONIZ TRISTÁN

Hezkuntza eta Gizarte Programaren Koordinatzailea



El mar Itsasoa

Claude Debussy

EL MAR (EDICIÓN DE 1945)
ITSASOA (1945EKO EDIZIOA)

**Orquesta Sinfónica
de Navarra
I Nafarroako Orkestra
Sinfonikoa**

Perry So
Director musical I Zuzendaria

María Setuain Belzunegui
Especialista en mediación
musical I Musika-
bitartekaritza aditua

Mediación realizada en **castellano**
| **Gaztelaniaz** egindako bitartekaritza
Educación Secundaria y Bachillerato
| Bigarren Hezkuntzako eta
Batxilergoko ikasleei zuzendua

Hay obras que no describen un paisaje: lo transforman en experiencia sensorial. Eso ocurre con *El mar* de Claude Debussy, una de las partituras más fascinantes del siglo XX. Lejos del sinfonismo romántico tradicional, Debussy construye aquí un océano cambiante hecho de color, luz, movimiento e insinuación sonora. *El mar* no aparece como una postal, sino como una fuerza viva: oleajes, reflejos, brumas, viento e incluso silencios parecen emerger de la orquesta.

La obra resulta especialmente atractiva para alumnado de Secundaria porque conecta con una escucha muy visual y cinematográfica; muchos reconocerán en ella recursos sonoros que hoy asociamos a bandas sonoras o al lenguaje audiovisual contemporáneo. Además, permite abordar cuestiones muy sugerentes en el aula: la relación entre música e impresionismo, la ruptura con las formas clásicas, la evocación de la naturaleza o la capacidad de la música para sugerir emociones sin necesidad de palabras. Escuchar *El mar* es descubrir cómo una orquesta puede convertirse, literalmente, en agua, luz y horizonte.

Obra batzuek ez dute paisaia bat deskribatzen: esperientzia sentsozial bihurtzen dute. Hori gertatzen da Claude Debussyren *La mer* lanarekin. XX. mendeko partiturarik liluragarrienetakoa da. Sinfonismo erromantiko tradizionaletik urrun, Debussyk kolore, argi, mugimendu eta soinu-iradokizunezko ozeano aldakorra eraikitzen du. Itsasoa ez da postal bat, indar bizi bat baizik: olatuak, islak, lanbroak, haizea eta baita isiluneak ere orkestratik irteten direla dirudi.

Obra bereziki erakargarria da Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat, oso entzute bisual eta zinematografikoa delako. Gaur egun soinu-bandekin edo ikus-entzunezko hizkuntza garaikidearekin lotzen ditugun soinu-baliabideak entzungo ditugu. Horrez gain, oso gai iradokitzaileak jorratu ditzakegu ikasgelan: musikaren eta inpresionismoaren arteko lotura, forma klasikoekiko haustura, natura gogora ekartzea edo musikak hitzik gabe emozioak iradokitzeko duen gaitasuna. *La mer* entzunda, orkestra bat, literalki, ur, argi eta zeruertz bihur daitekeela ikusiko dugu.

TEATRO DE TÍTERES | TXOTXONGILO-ANTZERKIA

Pintto, Pintto

Anita Maravillas Teatro
y Portal 71



Pintto es un travieso cachorro que se ha perdido. Pintto adora jugar, pero parece que alguien le teme y no quiere jugar con él. Pintto nos recuerda lo simple y maravilloso que es la amistad. *Pintto, Pintto* nos cuenta en clave de humor y ternura cómo algo tan simple como la amistad, algo que sucede inesperadamente, puede cambiar nuestra forma de ver la vida y de relacionarnos con los demás. Cuando Pintto aparece en la lavandería nada volverá a ser como antes.

Pintto txakurkume bihurria galdu egin da. Pinttok jolastea maite du, baina badirudi norbait beldur zaiola eta ez duela harekin jolastu nahi. Pinttok adiskidetasuna zein sinplea eta zoragarria den gogorarazten digu. Umorez eta samurtasunez, *Pintto, Pintto* antzerkian, adiskidetasuna bezalako gauza sinple eta ustekabeko batek bizitza ikusteko eta besteekin harremanak izateko dugun modua alda dezakeela ikusiko dugu. Pintto garbitegian agertzen denean, ezer ez da lehen bezala izango.

15/01/27
10:00 | 11:30

Auditorio Barañáin Auditorioa ⌚ 45'

Espectáculo sin texto

| Testurik gabeko ikuskizuna

2º y 3º de E. Infantil

| Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailako
ikasleei zuzendua

Vídeo | Bideoa



Músico Mágico

Quiquemago
y Orquesta Sinfónica
de Navarra
| Nafarroako Orkestra
Sinfonikoa

Músico Mágico es un espectáculo didáctico innovador. La Orquesta Sinfónica de Navarra y Quiquemago hechizarán al público y mostrarán lo unidas que están la música y la magia. Juntos enseñarán que compositores como Mozart, Tchaikovsky, Grieg, entre otros muchos, entrelazaron estas dos artes al componer algunas de sus obras más célebres. A través de encantamientos musicales, lograrán que el alumnado participe y disfrute de este concierto inolvidable.

Los espectadores aprenderán, entre otros conceptos, qué son las dinámicas musicales y qué es un tema y variaciones. Se acercarán a la ópera *La Flauta Mágica* de Mozart, a las sinfonías de Haydn y Beethoven, y también a la música folklórica y al jazz.



Santiago Blanco Cabaleiro
Director musical | Zuzendaria

Enrique García Vivanco,
Quiquemago

Música Mágico kontzertua ikuskizun didaktiko berritzailea da. Nafarroako Orkestra Sinfonikoak eta Quiquemagok publikoak liluratuko dituzte, eta musika eta magia zeinen lotuta dauden erakutsiko dute. Elkarrekin erakutsiko dute hainbat musikagilek, adibidez, Mozartek, Txaikovskik eta Griegek, bi arte horiek korapilatu zituztela beren lan ospetsuenetako batzuk konposatzean.

Musika-xarmaduren bidez, publikoak parte hartzea eta kontzertu ahaztezin honetaz gozatzea lortuko dute. Ikus-entzuleek, beste kontzeptu batzuen artean, dinamika musikalak zer diren eta gai bat eta bariazioak zer diren ikasiko dute. Mozarten *Txirula magikoa* operara gerturatuko dira, Haydn eta Beethovenen sinfonietara, eta bai musika folklorikora eta jazzera ere.

11-12/03/27
10:00 | 11:30

Auditorio Barañáin Auditorioa ① 50'

Castellano | Gaztelaniaz
EP3, EP4, EP5 y EP6 | LH3, LH4, LH5
eta LH6

Vídeo | Bideoa

ESPECTÁCULO TEATRAL MUSICALIZADO
I IKUSKIZUN MUSIKALA ANTZEZTUA

Funamviolistas sinfónico

Orquesta Sinfónica de Navarra
y The Funamviolistas



Tres mujeres que dedicaron toda su vida a la música y en el momento más álgido de sus carreras ven truncados sus sueños e ilusiones cuando reciben una carta de despido. Cada una por diversos motivos, y ante el abismo de la soledad y el temor a lo desconocido, deciden no rendirse. Ante la falta de nuevos proyectos comienzan su nueva andadura como músicos callejeros.

En este nuevo camino no solo descubren que no están solas, sino que hallarán también el espíritu de superación que une a los seres humanos ante la adversidad y el verdadero valor de la amistad. Un paseo por las emociones del ser humano a través de un acertado repertorio musical —la voz de estos personajes— que incluye obras de Antonio Vivaldi, Edvard Grieg, Jules Massenet, Georges Bizet, Astor Piazzolla, Rita Pavone, bandas sonoras de películas como *Deseando amar* (*Happy together*), *Les Triplettes de Belleville*, *Sweet Charity* y temas clásicos del jazz y del tango argentino.

Bizitza osoa musikari eskaini zioten hiru emakume, beren ibilbideetako une gorenean ametsak eta ilusioak ezerezean gelditu zirenak, kaleratze-gutun bat jasotzean. Bakoitza bere arrazoiengatik, eta bakardadearen eta ezezagunari zaion beldurraren amildegiaren aurrean, ez errenditzea erabakiko dute. Proiektu berririk ez dutenez, kaleko musikari moduan hasiko dute ibilbide berria. Bide horretan, batetik, ohartuko dira ez daudela bakarrik, eta, bestetik, zoritxarraren aurrean gizakiak batzen dituen hobetzeko espiritua eta adiskidetasunaren benetako balioa aurkituko dute. Keinu bidezko ikuskizuna, samurtasunez, umorez, sentsualitatez... betetako piezak dituen. Gizakiaren emozioetan egiten den paseoa, musika-errepertorio egoki batekin —pertsonaia horien ahotsa—, Antonio Vivaldi, Edvard Grieg, Jules Massenet, Georges Bizet, Astor Piazzolla, Rita Pavoneren lanak barne hartzen dituen, besteak beste, *Happy together*, *Les Triplettes de Belleville* eta *Sweet Charity* filmetako soinu-bandak, eta jazzaren eta Argentinako tangoaren abesti klasikoak.

08-09/04/27
10:00 | 11:30

Auditorio Barañáin Auditorioa ① 55'

Espectáculo **sin texto**
| **Testurik gabeko** ikuskizuna
EP3, EP4, EP5 y EP6 | LH3, LH4, LH5
eta LH6

Vídeo | Bideoa

Información, precios e inscripciones | Informazio, prezioak eta izen-ematea

Inscripciones

El plazo de inscripción para las actividades se abrirá el **15 de junio de 2025**. Las inscripciones deben ser gestionadas previa y directamente por el centro a través del siguiente [formulario de solicitud](#). Las plazas para las actividades son limitadas y serán asignadas por riguroso orden de inscripción.

Materiales de apoyo en el aula

La Fundación pondrá a disposición del profesorado material didáctico para introducir al alumnado en los contenidos del programa mediante un trabajo previo en el aula.

Precio y pago

Las actividades tienen un coste bonificado de **4€/alumna-o IVA incluido**. El pago se realizará mediante transferencia bancaria previa presentación de factura por parte de la Fundación Baluarte a los centros. Una vez emitida la factura no podrán realizarse modificaciones en el número de alumnado inscrito. El profesorado acompañante accederá sin coste con ratio no superior a una persona adulta por cada 20 alumnos/as, excepto en el caso de alumnado con NEE.

Información y contacto

Los centros pueden contactar con Fundación Baluarte sin ningún compromiso a través del correo electrónico educativoysocial@fundacionbaluarte.com para transmitir cualquier duda que pudiera surgirles.

El Programa Educativo y Social de Fundación Baluarte pertenece a la Red de Organizadores de Conciertos Educativos y Sociales.



Izen-ematea

Jardueretan izena emateko epea **ekainaren 15an** zabalduko da. Ikastetxeak aldez aurretik eta zuzenean kudeatu behar ditu inskripzioak, izena [emateko formulario](#) honen bidez. Jardueretarako lekuak mugatuak dira eta izena ematearen hurrenkeraren arabera banatuko dira.

Ikasgelan laguntzeko materialak

Fundazioak material didaktikoa jarriko du irakasleen eskura, ikasleak programaren edukietan sartzeko, ikasgelan aurrez egindako lanaren bidez.

Prezioa eta ordainketa

Jarduerak **4 €-ko kostu** hobariduna dute ikasle bakoitzeko, BEZa barne. Ordainketa banku-transferentzia bidez eginen da, Baluarte Fundazioak ikastetxeei faktura aurkeztu ondoren. Behin faktura jaulkita dagoenean, ez da zilegi izanen aldaketarik egitea izena emandako ikasleen kopuruan. Ikasleekin doazen irakasleak kosturik gabe sartuko dira, betiere ratioa gehienez pertsona heldu bat izanen da 20 ikasle bakoitzeko, hezkuntza behar bereziak (HBB) dituzten ikasleen kasuan izan ezik.

Informazioa eta harremana

Ikastetxeak inolako konpromisorik gabe jar daitezke gurekin harremanetan helbide elektroniko honen bidez, zalantzak baidatzeko halakorik badute: educativoysocial@fundacionbaluarte.com

Baluarte Fundazioaren Hezkuntza eta Gizarte Programa Hezkuntza eta Gizarte Kontzertuen Antolatzaileen Sarearen barnean dago.



Programa Educativo y Social de Fundación Baluarte I Baluarte Fundazioaren Hezkuntza eta Gizarte Programa



Fundación Baluarte cuenta con diversas líneas programáticas en respuesta a su compromiso y responsabilidad social y educativa.

En la programación se encuentran, entre otros, talleres participativos, actividades para centros educativos, espectáculos para público infantil y familiar, conciertos de carácter social, audiciones guiadas y vivencias artísticas dirigidas a personas en situación de vulnerabilidad.

Estas propuestas son diseñadas desde la convicción de la potencialidad de la música y las artes escénicas como recursos educativos y de transformación social y con el fin de favorecer el bienestar personal y colectivo de la ciudadanía.

Baluarte Fundazioak hainbat ildo programatiko ditu hezkuntza eta gizartearekiko duen ardura eta konpromisoari erantzuteko.

Programazio honek, besteak beste, parte-hartze tailerrak, hezkuntza-zentroentzako jarduerak, haur eta familientzako ikuskizunak, kontzertu sozialak, entzunaldi iruzkidunak eta egoera ahulean dauden pertsonen zuzendutako esperientzia artistikoak biltzen ditu.

Proposamen hauek, Musika eta arte eszenikoek hezkuntzarako eta gizarte eraldaketarako dituzten baliabide gisa duten ahalmenaren ustetik diseinatzeko dira adin, herritarren ongizate pertsonala eta kolektiboa sustazearen helburuarekin.

